

GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

URTEKO TXOSTENA - 2017

> 2018ko otsaila

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatzen ditu hilero Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, lurralde horretako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera. Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da. Argitalpen honetako informazioa lortzeko, **Gipuzkoan sozietate egoitza duten enpresa ez-finantzarioek** aurkeztutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenak erabili dira.

Hileroko txosten horien osagarri bezala, urteko txosten hau prestatzen da. Izan ere, enpresa horien BEZaren urteko aitortpenak ere oso erabilgarriak dira; aldagai nagusien urteko bilakaera zein izan den kalkulatzeko aukera emateaz gain, informazio estrukturalari buruzko oso informazio interesgarria ematen du. Dena den, ez da ahaztu behar lagin bat aztertzen ari garela, eta nahiz eta adierazgarritasun handia izan lagin horrek Gipuzkoako ekonomian, ezaugarri jakin batzuk dituela, eta ondorioz, datuak orokortzerakoan kontuz jokatu behar dela.

Urteko aitortpenetan jasotako informazioa hiru atal nagusitan banatuta dago:

1. **Sektorekako sailkapena.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan aitortutako epigrafe nagusitik abiatuta, enpresak 20 jarduera talde nagusitan sailkatuta daude.
2. **Enpresen tamainaren arabeko sailkapena.** Horretarako, enpresek 2017an izandako langile kopurua hartu dugu kontuan, eta 5 taldetan banatu ditugu.
3. **Eskualdeen arabeko sailkapena.** Enpresek aitortutako sozietate helbidearen udalerrria kontuan hartuta, eskualdeen arabeko sailkapen bat egiten dugu, eta bertan Donostia beste eskualde bat gehiago da, probintziako hiriburua izateak ematen dizkion berezigarriengatik.

EZAUGARRI NAGUSIAK

➤ 2017an Gipuzkoako enpresen salmentak %7,5 handitu dira


%7,5eko igoera horrek garbi gaitzen du 2016an izandako +%0,4a, eta gainera 2006 eta 2007an izandako igoeran gainetik dago; hau da, krisia hasi aurretiko urteak.

Igoera hori eman da, gehienbat, barne merkatuari esker (+%9,5), eta aztertutako serie historikoaren gehiengoa markatzen du. Esportazioak ere nabarmen handitu dira (+%4,1), eta gainera, 2016an izandako moteltze txikia gaitzen dute.

1. taula. GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (urte arteko bariazio tasa)

$\Delta\%$	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak	Inportazioak
2006	7,1	6,6	8,4	11,9
2007	7,1	6,1	10,0	12,3
2008	0,0	-1,5	4,6	0,0
2009	-20,5	-20,2	-21,6	-37,4
2010	2,1	-4,6	21,6	28,4
2011	0,5	-5,0	12,8	11,0
2012	-5,1	-8,0	0,4	-8,7
2013	-3,6	-5,4	-0,5	-1,0
2014	3,3	3,3	3,2	1,2
2015	4,9	3,0	8,2	11,3
2016	0,4	1,7	-1,8	-5,6
2017	7,5	9,5	4,1	14,0

1. grafikoa – SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)




EZAUGARRI NAGUSIAK

➤ **Gutxitu egin da esportazioen garrantzia Gipuzkoako enpresen salmentetan**

2017an barruko salmentek kanpokoak baino portaera hobia izan dutenez, esportazioen pisua salmenta osoen gainean jaitsi egin da 2016an zuen %36,3tik 2017ko %35,2ra; eta, aldiz, epealdi berean barruko salmenten pisua handitu egin da, %63,7tik %64,8ra.

Krisi aurretik, 2006-2007 urteetan, esportazioen pisua %25-%26 inguruan zebilen; beraz, hamar urtetan 10 puntu baino gehiago irabazi dituzte kanpoko salmentek, nahiz eta 2017 jaitsi izan.

2. grafikoa – Salmenta osoek 2016 eta 2017an izandako banaketa➤ **Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso handia da**


Nahiz eta esportazioen bilakaera barruko salmentena baino okerragoa izan, Gipuzkoako ekonomiak kanporako irekiera maila oso handia izaten jarraitzen du: saltzen den 100 euroko 35,2 euro kanpoko merkatuetara bideratzen da. Gipuzkoako esportazioen 3 helbide nagusiak, handienetik txikienera ordenatuta, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira; guztira, esportazioen osoen %35a baino gehiago metatzen dute. Eta horrek badu beste ondorio bat: Gipuzkoako enpresak gero eta sentiberagoak direla herrialde horien bilakaera ekonomikoaren aurrean. Eta bereziki, adi egon beharko da Brexit-ak hartuko duen bideari eta Gipuzkoako esportazioetan horrek izango duen eraginari.

Kanpora egindako salmenta horien norakoan gehiago sakonduz gero, portaera desberdina nabarmentzen da. Alde batetik, Europar Batasuneko merkatuetara egindakoak %2,6 jaitsi dira 2017an; eta ,aldiz, Europaz kanpoko merkatuetara egindakoak %15,1 igo dira.

Bilakaera desberdin horien ondorioz, EBra egindako esportazioek pisua galdu dute: %62,3tik %58,3ra pasa dira (4 puntu gutxiago). Bestalde, munduko gainerako herrialdetara egindako esportazioak %41,7 suposatzen dute (iaz, berriz, %37,7 ziren).

EZAUGARRI NAGUSIAK


3. grafikoa – Esportazioek EBra eta munduko gainerako herrialdetara 2016 eta 2017an izan duten banaketa



2017an inportazioak modu nabarmenean handitu dira (+14,0). Alde batetik, barne kontsumoaren hobekuntzak kontsumorako diren produktuen inportazioa handitzen du, eta bestalde, ekoizpenaren hobekuntzak, ekoizpenean bitarteko produktu bezala erabiltzen diren produktuen inportazioa handitzen du. Gipuzkoako enpresen inportazioen hornitzaile nagusiak Frantzia, Alemania, Txina eta Italia dira. Lauren artean, inportazio osoen erdia baino gehiago metatzen dute.

Kasu honetan, aztertutako bi eremuek zeinu berdineko portaera erakusten dute, nahiz eta balio desberdinak izan. Horrela, EBtik egindako erosketak %13,0 igo dira, eta EBtik kanpo egindakoak %17,7 handitu dira. Halere, bien arteko banaketa gutxi aldatu da, eta Gipuzkoako enpresen inportazioen ia-ia %80a Europako herrialdeetatik dator.

4. grafikoa - Inportazioek eremuen arabera 2016 eta 2017an izan duten banaketa



Esportazioen bilakaera (+%4,1) inportazioena (+%14,0) baino okerragoa izan denez, estaldura edo saldoaren ratioa jaitsi egin da: 2016an %240 zen, eta orain %219 da. Nahiz eta bilakaera hori izan, datu absolutuak oso positiboak izaten jarraitzen du; izan ere, esan nahi du esportazioak inportazioak baino 2,19 aldiz handiagoak direla. Hasieran aipatu dugun bezala, datu horiek aztertutako laginari dagozkio; Gipuzkoako ekonomia osoa kontuan hartuta estaldura ratioa txikiagoa da, %200 inguru; hau da esportazioak inportazioen bikoitza dira.


SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA *

➤ **Sektoreen arteko banaketan aldaketa txiki bat eman da 2016. urtearen aldean: industriak eta eraikuntzak pisua galdu dute (%0,6 eta %0,1, hurrenez hurren); eta hori izan da zerbitzuen sektorearen onerako (0,7 puntu irabazi ditu).**

2017. urtean aztertutako 3 sektoreen salmentak handitu egin dira: industria +%6,1, eraikuntza +%5,1 eta zerbitzuak +%9,6.

Zerbitzu sektorean hazkundera handiagoa izan denez, sektoreen arteko banaketak aldaketa txiki bat eman da. Industria sektoreak salmenta osoen %56,4 da (iaz baino 0,6 puntu gutxiago). Zerbitzu sektorearen salmentak salmenta guztien %39,0 suposatzen dute (2016ko %38,3 baino 0,7 puntu gehiago). Eta eraikuntzaren sektoreak, berriz, bere partaidetza iazko %4,6tik aurtengo %4,5era murriztu du.

5. grafikoa - Salmenta osoek sektoreen artean 2016 eta 2017an izandako banaketa




* Aztertutako laginak bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, enpresa finantzarioak kanpo geratzen dira; eta bestetik, hilerio BEZaren aitorpena aurkeztzen duten enpresak bakarrik hartzen dira; hau da, nolabait zerbitzu sektoreak ordezkagarritasun txikiagoa du, eta enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkatzuta laginean. Azkenean, bi faktore horien ondorioz, industriaren pisua benetakoa baino handiago da; eta alderantziz, zerbitzuena txikiagoa. Horrela, 2016eko EUSTATen kontu ekonomikoen arabera, Gipuzkoan industriak Barne Produktu Gordinaren %28,2 suposatzen zuen, eraikuntzak %6,1 eta zerbitzuek %65,7.

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ **Industria garrantzitsua izan arren, sektore maila xehatuago baten ikuspuntutik, merkataritzaren azpisektorea aipagarriena da, salmenta osoen %23,5 hartzen baitu.**

Sektoreak 20 taldetan sailkatuta, agerian geratzen da merkataritzaren azpisektorea aipagarriena dela 2017an izandako salmenta osoetan (kopuru osoaren %23,5); horren atzetik, tarte luze batera, beste hauek aurkitzen dira: makineria (%15,9), garraio-materiala (%8,6) beste zerbitzu komertzialak (%7,8), eta, azkenik, garraioa eta komunikazioak (%7,1).

6. grafikoa - 2017an salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




2016ko pisuarekin alderatuta, eman diren aldaketa hauek izan dira: 0,5 puntuko igoerarekin irabazirik handiena beste zerbitzu komertzialak adarrak izan du (%7,3tik %7,8ra pasa da); merkataritzak 0,4 puntu irabazi ditu (%23,1etik %23,5era), eta material elektrikoak 0,3 puntu irabazi ditu (%2,8tik %3,1era). Ikusi daitekeen bezala, pisu gehien irabazi dute hiru adarrak, bi pisu erlatiborik handiena duten adarren artean daude. Bestalde, galerarik handiena garraio-materialean eman da (0,5 puntu gutxiago, %9,1etik %8,6ra pasa baita); eta garraioa eta komunikazioak 0,3 puntu galdu ditu pisu erlatiboan %7,4tik %7,1era pasa baita.

Salmenta osoen bariazioari dagokionez, aztertutako 20 sektoreetatik 18an igoerak eman dira eta 2tan bakarrik jaitsierak (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza -%10,3, eta zurgintza eta altzarigintza -%2,1). Igoerarik handienak adar hauetan eman dira: beste zerbitzu ez komertzialak (+%27,5), material elektrikoa (+%20,8), metalgintzakoa ez den industria (+%15,5) eta beste zerbitzu komertzialak (+%14,9).

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA


7. grafikoa - 2017an salmenta osoen bariazio handienak eta txikienak izan dituzten adarrak (%)



➤ Industria adarrak dira nagusi Gipuzkoako enpresen esportazioetan

Gipuzkoako enpresen kanpo salmenten oinarria ekipo ondasunei lotutako industria adarrak dira: makineriari eta garraio-materialari dagokienez, esportazio guztien %26,4 eta %18,3 dira, hurrenez-hurren; oinarritzko metalgintza %8,8 da, metalezko gaiak %8,0 eta metalezko eraikuntzak %7,3. Bost sektore horien artean Gipuzkoako esportazio guztien %68,8a hartzen dute.

8. grafikoa - 2017an esportazioen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

Esportatzaileagoak diren adarren artean, eta 2016aren aldean, adarrik esportatzaileenak, makineriak, pisua irabazi du: esportazio osoen %25,4 izatetik %26,4 izatera pasa da, eta iaz baino %8,1 gehiago esportatu du. Aldiz, bigarren adarrik esportatzaileenak, garraio-materialak, 1,1 puntu galdu ditu (%19,4tik %18,3ra pasa da), izan ere, esportazioak %2,0 jaitsi dira 2016. urtearekin alderatuta.

- **Garraio-materialaren adarrean salmenten %74,4 kanpoan egiten da, eta enpresen multzo osoaren batez bestekoa %35,2 da**

Esportazioek salmenta guztien aldean zer pisu hartzen duten begiraturik, ikus daiteke hainbat adarretan beren salmenten erdia baino gehiago kanpoan egiten dela.

9. grafikoa – 2017an esportazioek salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)



Garraioko materialaren adarrean esan daiteke salmenta osoen hiru laurdenak (%74,4) kanpoko merkatuetan egiten direla; aldiz, enpresen multzo osoaren batez bestekoa %35,2 da. Beste bost adarrek ere erdia baino gehiago kanpoan saltzen dute: makineria (%58,3), oinarrizko metalgintza (%57,7), metalezko gaiak (%55,5), material elektrikoak (%50,8) eta metalezko eraikuntzak (%50,2).


TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA *

➤ **Enpresa txiki eta ertainek pisu oso handia dute Gipuzkoako ekonomian: salmenta osoen %69,9 egiten baitituzte**

Ezaguna da Gipuzkoako enpresa sarearen barruan enpresa txiki eta ertainak nagusi direla. 250 langile baino gutxiago dutenak halakotzat hartuta, salmentetan duten garrantzi kuantitatiboa handia da, salmenta horien %69,9 egiten baitituzte; hau da, salmentetako 100 euro bakoitzeko, ia-ia 70 euro enpresa horiexek saltzen dituzte.

Bestetik, enpresa handienek (250 langile edo gehiago) salmenta osoen %30,1 egiten dute.

10. grafikoa - Enpresa taldeak 2017an salmenta guztien aldean izandako pisu erlatiboaren arabera (%)



2016aren aldean, alderantzikako korrelazioa garbia ikusten da langile kopurua eta salmenten hazkundearen artean. Horrela, 250 langiletik gora dituztenen salmentak %5,2 hazi dira; 100 eta 249 langile bitartekoenak %6,7; 50 eta 99 langile bitarteko enpresen salmentak %7,2 igo dira; eta 25 eta 49 langile bitartekoenak %7,0 handitu; eta azkenik, salmentak gehien hazten (+%12,7) diren taldea txikienetan da, 25 langiletik behera dituztenak.

* Aztertutako laginak duen ezaugarri nagusietako bat da, BEZren aitortpena hilero aurkezten duten enpresak hartzen direla; hau da, nolabait enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkaturik laginean. Beraz, errealitatean Gipuzkoan enpresa txikien dute pisua hemen erakusten dena baino handiagoa izango da.


TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ Enpresa handienek profil esportatzaile argiagoa dute

2017ko datuen arabera, argi eta garbi geratzen da enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan kanpoan gehiago saltzen dela. Hori horrela, 250 langile edo gehiagoko enpresek beren salmenta guztien %48,8 saltzen dute kanpoko merkatuetan; enpresa txikienetan, aldiz, %16,9 da. Portzentaje hori argi eta garbi igotzen da enpresaren tamaina handitzen den neurrian

Gaur egun internazionalizazioaren erronka, enpresak mantendu eta hazteko funtsezko faktore bat da. Globalizazioaren testuinguruaren barruan, eta barruko merkatuen gelditzea prozesua ikusirik, kanpoko merkatuetara irekitzea, enpresak zabaldu eta hazteko aukera argi bat da, eta enpresen lehiakortasunean oinarritu behar da. Eta, nahiz eta egia izan lehiakortasuna kanpoko merkatuetan sartzeko funtsezkoa dela, datuen arabera dirudi enpresen dimentsioa eta tamaina ere garrantzitsuak direla.

11. grafikoa – 2017an esportazioen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA


➤ Goierrik du pisu erlatiborik handiena salmenta osoetan

Goierrik lurraldeko salmenta osoen %18,1a hartzen du, nahiz eta 0,8 puntu galdu dituen 2016an izan zuen %18,9aren aldean; eta hori, nahiz eta salmentak osoak %3,4 handitu diren. Izan ere, hazkundea askoz handiago izan da beste eskualde batzuetan: Donostia (+%12,1), Debarrena (+%12,6) eta Tolosaldea (+%15,4).

Bigarren lekuan Donostia dago, salmenta guztien %15,7a metatzen du, 2016an baino 0,6 puntu gehiago. Debagoienako enpresak, berriz, hirugarren lekuan daude, lurraldeko salmenta osoen %13,7 metatzen dute, eta laugarren lekuan Donostialdea dago, lurraldeko salmenta osoen %13,4arekin.

Igoerarik handiena Tolosaldeako enpresen salmentetan eman da (+%15,4), gehienbat barruko salmentetan hobekuntzagatik (+%19,0), nahiz eta esportazioak ere nabarmen igo diren (+%10,8). Salmenta osoen bigarren igoerarik handiena Debarrenan gertatu da (+%12,6), eta kasu honetan arrazoia gehiago izan da barruko salmenten igoera (+%20,8) esportazioena baino (+%2,1).

12. grafikoa - Salmenta osoen pisu erlatiboa eskualdeen arabera 2017an (%)




ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ Goierriko enpresek beren salmenten erdia baino gehiago kanpoko merkatuetan saltzen dituzte

Oro har, esan daiteke Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso altua dela; eta batez ere Goierri, Debagoiena, Tolosaldea, Debabarrena, eta Urola Kostako enpresena. Horrela, Goierriko enpresek kanpoko merkatuetan beren salmenta osoen %55,9 saltzen dute, eta Debagoienakoak %48,8.

Aitzitik, Donostian esportazioak nekez salmenta osoen %8,2 dira, hau da, lurraldeko %35,2ko batez bestekotik oso urruti dago; horren arrazoia da eraikuntzak eta hirugarren sektoreak (merkataritza, zerbitzuak...) hiriburuan duen pisu handia.

13. grafikoa - Eskualdeen araberako sailkapena – 2017an esportazioek salmenta osoen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan jasotako datuen taulak populazio konstantearen arabera datuei dagozkie. Hau da, bariazio tasak bi urtez jarraian zergaldi berean aitortzen duten enpresen gainean kalkulatu dira. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte



> Urteko txostena - 2017

GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

URTEARTEKO BARIAZIOEN LABURPENA

1 Taula. Salmenta osoak: barrukoak eta kanpokoak.
(urtearteko bariazio tasak,%)

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1

**2 Taula. Salmenta osoak produkzio sektoreen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	13,1	7,7	-1,6
2007	7,5	11,8	5,6
2008	1,8	10,5	-4,8
2009	-25,1	-11,1	-14,8
2010	6,0	-21,8	2,1
2011	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,4	0,9	3,4
2015	5,4	-7,5	6,3
2016	-0,7	-5,4	2,9
2017	6,3	5,1	9,6

**3 Taula. Esportazioak eta inportazioak ingurune geografikoen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7

4 Taula – SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA - (urtearteko bariazio tasak,%)

Taldea	Izena	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
		2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	
	Guztira	100,0	100,0	7,5	100,0	100,0	9,5	100,0	100,0	4,1	35,2
01	Nekazaritza, abeltzaintza arrantza	0,0	0,0	-10,3	0,1	0,1	-7,8	0,0	0,0	-32,6	8,4
02	Energia eta ura	0,6	0,6	8,9	0,8	0,7	2,1	0,2	0,3	0,0	19,3
03	Oinarrizko metalgintza	5,6	5,3	3,4	3,3	3,5	15,5	9,5	8,8	-3,9	57,7
04	Metalgintzakoa ez den industria	1,1	1,2	15,5	0,9	0,9	13,5	1,5	1,7	17,5	49,5
05	Kimika	1,4	1,4	5,3	1,3	1,3	5,2	1,6	1,6	5,2	41,1
06	Metalezko eraikuntzak	5,1	5,1	8,7	3,6	3,9	18,1	7,5	7,3	0,7	50,2
07	Metalezko gaiak	5,0	5,1	9,0	3,5	3,5	8,0	7,6	8,0	9,7	55,5
08	Makineria	16,2	15,9	5,9	10,9	10,2	2,8	25,4	26,4	8,1	58,3
09	Material elektrikoa	2,8	3,1	20,8	2,1	2,4	27,0	4,1	4,5	15,4	50,8
10	Garraio materiala	9,1	8,6	1,9	3,2	3,4	16,0	19,4	18,3	-2,0	74,4
11	Elikagaiak	3,6	3,5	4,2	4,8	4,6	4,7	1,6	1,5	0,1	15,1
12	Ehungintza eta oinetakogintza	0,1	0,1	2,0	0,2	0,1	3,8	0,1	0,1	-1,7	33,8
13	Zurgintza eta altzarigintza	0,5	0,5	-2,1	0,5	0,5	-1,2	0,5	0,5	-4,2	34,5
14	Papergintza eta grafikak	4,2	4,2	8,7	4,0	3,9	6,1	4,5	4,9	12,5	40,7
15	Kautxua eta plastikoa	1,8	1,7	2,0	1,5	1,5	8,7	2,4	2,1	-5,2	44,6
16	Eraikuntza	4,6	4,5	5,1	7,2	6,8	3,9	0,2	0,4	71,4	2,9
17	Merkataritza	23,1	23,5	9,3	32,1	32,5	10,6	7,2	6,9	-0,5	10,4
18	Garraioa eta komunikazioak	7,4	7,1	3,7	8,4	8,0	4,0	5,6	5,6	3,1	27,6
19	Beste zerbitzu komertzialak	7,3	7,8	14,9	10,9	11,4	14,6	0,9	1,1	18,8	4,9
20	Beste zerbitzu ez komertzialak	0,5	0,6	27,5	0,9	1,0	27,6	0,0	0,0	-44,7	0,1

5 Taula – ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA
(urtearteko bariazio tasak,%)

TAMAINA	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	
Guztira	100,0	100,0	7,5	100,0	100,0	9,5	100,0	100,0	4,1	35,2
25 langile baino gutxiago	19,1	20,0	12,7	24,7	25,7	13,9	9,3	9,6	6,8	16,9
25 - 49	12,4	12,3	7,0	14,9	14,6	7,4	8,1	8,2	5,4	23,3
50 - 99	14,7	14,7	7,2	15,1	15,0	8,8	14,1	14,2	4,3	33,9
100 - 249	23,1	22,9	6,7	21,8	21,0	5,1	25,2	26,4	9,1	40,6
>=250	30,7	30,1	5,2	23,5	23,7	10,6	43,3	41,7	0,2	48,8

6 Taula – ESKULADEEN ARABERAKO SAILKAPENA

(urtearteko bariazio tasak,%)

ESKULADEAK	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	2016ko pisua	2017ko pisua	Bar. 2017/2016	
Guztira	100,0	100,0	7,5	100,0	100,0	9,5	100,0	100,0	4,1	35,2
Bidasoa Behea	8,2	8,4	9,6	10,1	10,1	10,1	5,0	5,2	7,4	21,8
Debabarrena	7,5	7,9	12,6	6,7	7,4	20,8	9,0	8,9	2,1	39,5
Debagoena	13,6	13,7	8,3	10,8	10,8	9,2	18,3	19,0	7,6	48,8
Donostialdea	14,0	13,4	3,4	16,4	14,8	-0,7	9,8	10,9	15,0	28,5
Goierra	18,9	18,1	3,4	12,2	12,3	10,5	30,4	28,8	-1,3	55,9
Oarsoaldea	6,9	6,8	5,8	7,4	7,1	6,3	6,2	6,3	4,7	32,2
Donostia	15,1	15,7	12,1	21,7	22,3	12,8	3,7	3,7	3,6	8,2
Tolosaldea	6,9	7,4	15,4	6,2	6,7	19,0	8,2	8,7	10,8	41,3
Urola Kosta	8,9	8,5	2,5	8,7	8,4	5,8	9,3	8,7	-2,7	35,8